

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 203. alea - 2016ko urtarrila



**EUSKAL EZKONTZA,  
BIZITZA IZANA FIKZIORA,  
INAUTERIETAN**





**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatzza**

943 191 383  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)



**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: [hazirik@gmail.com](mailto:hazirik@gmail.com)



**kutxa**




kutxabank



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**



**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
[sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Jturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

**ISABEL**  
FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe • 20820 DEBA  
943 029 186

**IAZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
197Setik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Calbeton**



JATETXEA

**Agustín**  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI**  
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: [larranaiak@gmail.com](mailto:larranaiak@gmail.com)

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**sasoi**  
iko

ekodenda,  
dietaetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lesandi, 14  
943 19 24 42  
[sasoi@hotmail.com](mailto:sasoi@hotmail.com)

203. alea - 2016ko urtarrila

# AURKIBIDEA

06

## INAUTERIAK

Gure Kai: "Herritar guztiak daude gonbidatuta Euskal Ezkontzara"



08

## ALBISTEAK

"Maite Etxeberria" nesken binakako pala txapelketa, Tene Mujika Beka...



10

## GABONAK

Gabonei errepasoa, iruditan: Olentzero eta Mari Domingi, San Silbestrea...



12

## ZORO FERIA

Urte berriko ferian banatutako sariak, Urrezko Aizkora, idi-probak...



14

## B. GAZTEA

Euskararen Eguna Mendatan, elkarrizketa Roke Etxeberriari, inkesta...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonia: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatza**  
Euskararen Eguna Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sarbuerordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

### Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa:** 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

**Inprimategia:** Euskalinpri

**Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.





## Errima Frustratuen Kluba

Pedro Mari Otañoren bertso hau gerra garaian kokatzen da. Berak, bertso honen bidez, etorkizun pertsonalean pentsatu gabe ideia batzuk defendatu nahian gerrara joan zen gizon baten gogoetak kontatzen dizkigu. Orain, beste inori opa ez dion egoera bizi du, ordea, gizon honek... kalean limosnatxo bat lortu ezinda aurkitzen da...

### MUTIL KOXKOR BAT (Limosnatxo bat) -1893-

Mutil koxkor bat itsu aurreko  
zuela aldamenian  
gizon burusoil bizar zuri bat  
bi makuluren gainean,  
kale ertzian ikusi nuen  
inora ezin joanian  
ta bera nor zan jakin nahian  
inguratu nintzanean...  
limosnatxo bat eskatu zidan  
Jainkuaren izenian.

Zerbait emanaz galdetu nion  
al zan modu onenian,  
jaiotzatikan al zeukan ala  
gaitzak hartua mendian;  
erantzun zidan: ez semia, ez,  
nik sasoia nuenian,  
ez nuen uste iritxizterik  
honetara azkenian...  
gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkuaren izenian.

Eta segitu zuen esanaz:  
lehengo gerrate denian,  
ni aurren xamar ibiltzen nintzen  
beti edo gehienian.  
nekatu gabe aisa igoaz,  
aldapik luzenian,  
etzan burura asko etortzen  
gu hala genbiltzanean...  
gero limosna eskatutzerik  
Jainkuaren izenian.

Odola bero eta burua  
harrua dagoenian  
edozein moduz sartutzen da bat  
halako itsumenian:  
atsekabe ta negar saminak  
badatoz ondorenan,  
nola ere bait batek bizia  
utzitzen ez duenian  
limosnatxo bat eskatu behar  
Jainkuaren izenian.

Inoiz pentsatzen nere artian  
ni jarritzen naizenian,  
gaur ere asko dirala joango  
lirakenak zuzenian.  
ez luke inork sinistatuko  
zer pena ematen didan.  
ai! horla nintzan ni ere sano  
ta gazte nengoenian...  
gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkuaren izenian.

Ai! txorakeri asko egiten  
da zentzurik ez danian;  
sinista zazu ur hau pasia  
daukanaren esanian:  
hobiago da sasoin dan arte  
saiautuzia lanian.  
negar eginaz ibili gabe  
gero denbora joanian...  
limosnatxo bat bildu ezinik  
Jainkuaren izenian.

*Letra:* Pedro Mari Otaño (1857-1910)

*Doinua:* Doinu hau neurritz nahi adina luzatu izan dute bertsolariek; horietako bat POZAK TXORATZEN HEMENTXE NATOR da. Xabier Letek 2001 urtean plazaratu duen bertso antologian HAMAIIKA ALDIZ DAUKAZU LEHENDIK izeneko doinuan kantatzen ditu bertsoak, Txirritaren Pasaiaiko grebari buruzkoak kantatzeko erabiliz; eta Otañoren Txepetxaren bertsoak, aldiz, BIZIA EZ DA NEHOIZ EGOITEN izeneko doinuan.



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 2/05/049  
NIVEL 2



## MIKEL AIZPURUA PICASSO ETA OKELAR

*Picasso? Ikusi al dituzu, ba, berak margotutako zaldiak? Ume batek hobeto egingo lituzke. Picassok berak emango lioke erantzuna: "Umetatik pintatu izan dut Rafaelek bezala; baina bizitza osoa eman dut ume batek bezala pintatzen ikasten". Malagan dagoen Picasso museoan ikusi nituen "Pablito" umeak, paper falta zela eta, aitak erretzen zituen Farias kajetako tapetan pintatutako zaldi buruak. Perfektuak ziren. Horrelako argazkirik! Bazuen errealtatea kopiatzeko gaitasuna. Uste dut edozein artista-ren lehen pausua hori dela, kopiatzea, alegia. Gero sormena etorriko da. "Nik ez dut ikusten dudana pintatzen, nik pentsatzen dudana pintatzen dut" (Picasso).*

Roman Maiz "Okelar" bertsolaria ume zela, gai zen bertso bat entzun, buruan gorde eta egunetara, asteetara eta urteetara kantatzeko. Entzundakoaren erabateko kopia egiten zuen. Gerora, berea sortzeko gai izan zen eta bertsolari harrigarria izan zen. Umore eta ironia finekoa, Santaeskean soka luzekoa, sentimenduzko bertsoetan sakon eta hunkigarria...

Bi artistok abiapuntu bera izan zuten: errealtatea behatu, hartaz jabetu eta buruan gorde. Buruan gorde: memoria. Ezer buruz ikastea gutxietsi samar den garaiotan, memoriaren alde egin behar dela uste dut. Okelarren memoria izugarria zen. Bederatzi urteko umea zela entzundako bertso bat kantatu zidan 2007an egindako elkarrizketa batean. Bertso horrekin batera beste batzuk ere

kantatu zizkidan; hala nola, Basarrik eta Uztaipidek Mutrikun (1946. urtearen inguruan) egin zuten saio bateko zenbait. Harrigarria zaigu, gaur eguneko, horrelako burua izatea; bertso bat, behin entzunda, bizitza osoan gordetzeko abildadea. Okelarren esanetan, "gustokoa erraz gordetzen da buruan". Emozioa memoriaren lagun ona omen da. Roman txikia, 9 urteko umea zela, Astigarrabira lehen bertso saioa entzutera joan zen. Neurrigabekoa izan omen zuen bertsolari bat aurrez aurre entzuteko gogo. Esperientzia hartaz jabetu beharrak eta barneko zirrarak lagundu zioten bertso bat baino gehiago buruan gordetzera eta, etxera bueltatzean, haiek buruan behin eta berriz erabiltzera. Gaztetan buruz ikasitako guztiak ez zituen zahartzarorako gorde, baina asko bai.

Gaur egun ere dena gordetzen dugu. Aldea da lehengoek buruan gordetzen zutena guk poltsikoan gordetzen dugula. Gure buruaren memoria baino beharrezkoagoa zaigu mugikorren memoria. Teknologiak aurreratuagoak egin omen gaitu, baina ezguzago ere bai.

Memoriaren beharra aldarrikatu behar dugu, ez erreproduzio gaitasuna delako bakarrik, sortzeko gaitasunaren oinarrian ere bada- goelako, baizik. Sormena ondo kudeatutako memoria dela entzun izan diot Andoni Egañari. Ondo betetako ganbaran dauden osagaiak aukeratu eta une egokian ekartzea da kontua.

Irudimena garatzeko, sortzaile izateko, teknologiaren menpe-ko ez izateko memoria dugu lagunik onena.







## “Oso garrantzitsua da herritarren parte-hartzea. Guztiak daude gonbidatuta Euskal Ezkontzara”

**Konturatu orduko, ate-joka ditugu Inauteriak -otsaileko lehenengo astean ospatuko dira-. Aurtengo egitarauak bere baitan dakartzan ekimen ezberdinen artean, Gure Kai Euskal Dantzari taldeak proposatutako Euskal Ezkontza hartu nahi izan dugu hizpide oraingo honetan. Otsailaren 6an antzinako sasoietara bueltatzeko gonbitea herritar guzti-guztiei luzatu zaie. Ospakizunaren inguruko nondik norakoak jakin nahian, Gure Kaiko kideekin jarri gara harremanetan.**

Euskal Ezkontza antolatzen ari zarete. Zer nolatan edo zergatik bururatu zaitzue ideia hau?

Gure Kai Euskal Dantzari Taldeak, bi urtetik behin, Udalaren laguntzaz, euskal inauteriak antolatzen ditu. Azken urteetan gure ideiak beti berdinak zirela ikusita, taldeko kide batek aurkeztu zuen aurten inauterietan Euskal Ezkontza antzetzeko aukera, orain dela 30 urte antzetzuta zenaren antzeko zerbait egitea proposatuz.

**Antolakuntza lanetan buru-belarri dabil Gure Kai taldea. Dena den, herriko beste hainbat eragileren laguntza edo parte-hartzea izango du ekimenak, ezta? Elkarlanean ari zarete guztia prestatzen?**

Lehen aipatu bezala, Udalaren laguntza izaten dugu euskal inauteriak antolatzeko garaian, baina ezin aipatu gabe utzi Deban aurki ditzakegun beste hainbeste eragile edota talde ere, beraiek gabe hau ezin izango genuke aurrera atera: Kalez Kale txistulari taldea, trikitalariak, dultzaineroak, Goaz antzerki taldekoak, Gazte Asanbladako kideak, Kuadrillategikoak, Aitzuri abesbatzakoak, Musika eskolako dantzariak, dantza ikastaroko partaideak, eta beste hainbat talde.

**Antzinako sasoietara bueltatzeko proposamena da aurtengoa. Gure arbasoen ezkontzak nolakoak ziren ba ote daki-**

**gu? Zer nolako ospakizunak izaten ziren?**

Idea irten zenean, taldeko partaide gehienok bidea ikusi ondoren jakin genuen gure arbasoen ezkontzak nolakoak izaten ziren, baina baseuden taldeko kide batzuk azalpenak emateko prest zeudenak. Garai haietan, ezkontzak ospakizun handiak izaten ziren, herriko jende guztia izaten zen ezkontzaren partaide, familiakoak ez baziren ezagunak zirelako edota betiere gonbidatuta zeudelako.

**Dantzak, ezkontza... eta dotearen aurkezpena arratsaldean. Zer da dotea?**

Dotea, emaztegaiaren familiakoek etxean zituzten ondasunak dira: eskuz eginko izarak, baliozko ontziak, altzariak, kutxa... Hau dena prestatzea emaztegaiaren amaren ardura izaten zen, ezkondu ondoren gizonaren etxera eramateko. Gauza guztiak gurdian sartzen zituzten eta, kaleko jendeari kalejiran erakutsi ondoren, bazkalostean, emaztegaiaren amak doteko gauza guztiak banan-banan jendearen aurrean aurkezten zituen; horrela, beren maila ekonomikoa ere erakusten zuten. Hala ere, ohikoa zen izara eta mantel bordatuak andregaiak egitea.

**Dokumentazioa bilatu behar izan duzue hitzordua antolatzeko? Zein informazio iturritara jo duzue?**

Orain dela 30 urte Euskal Ezkontza antzetzuta zutenengana jo dugu batez ere aurtengoa antolatzeko orduan. Hala ere, idiak, gurdiak... lortzeko Lekeitiora jo dugu, bertan Euskal Ezkontza urtero antzetzten baitute.

**Aipatu duzuen bezalaxe, ez da Deban egiten edo antzetzten den lehenbiziko Euskal Ezkontza. Duela 30 urte ere, 1986an, antolatu zen halako ekimena. Erreferentziatzat hartuko duzue 86ko hura?**

Bai, oso aintzat hartu dugu. Alegia, orduko hartan oinarrituta antolatu dugu aurtengoa ere. Gainera, laguntza handia eman digute Goaz Antzerki Taldeko kideek.

**Dantzariak zabiltzate aurtengo hitzordua prestatzen. Baina dantzaz aparte, antzetzpena ere suposatuko du Euskal Ezkontzak. Herritarren parte-hartzea bilatuko duzue festa hau aurrera ateratzeko?**

Oso garrantzitsua ikusten dugu herritarren parte-hartzea. Horretarako, hainbat bilera antolatu ditugu eta, horrez gain, Mendata B.H.I.ra ere joan gara gure aurkezpentxo txiki bat egitera, ondoren kaleko jendeari zabaldu dioguna, whatsapp edota facebook bidez. Herriko hainbat ate jo behar izan ditugu festa hau jendetsua eta parte-hartzailea izan dadin.



**Nola parte har dezakete herritarrek aurtengo Euskal Ezkontzan? Denak daude gonbidatuta?**

Herritar guztiak daude gonbidatuta festa handi honetara. Bakoitzak ideia ezberdinak izan ditzake mozorrotzeko garaian: batzuk pertsonaia solteak, besteak bikoteka, taldeka... baina garrantzitsuena mozorrotu eta parte hartzea da.

**Santa Krutz ermitan antzeztuko da aurtengo ezkontza. Ezkongaiak zeintzuk izango diren aurreraterik bai?**

Ezkongaiak dantza taldeko bi partaide izango dira. Goaz Antzerki Taldekoek aurten ezkongaiak guk bilatzeko eskaera egin ziguten; guk taldean zabaldu ondoren, animatu eta taldekoak izan daitezela erabaki genuen.

**Eguerdiaren ekingo zaio egitarauari eta erromeriarekin amaituko da ospakizuna. Ezkontza guztietan bezala, ezingo da falta jan-edanik ere (sagardoa, bazkaria...).** Aurrez eman behar da izena? Edonor joan daiteke? Mozorrotuta?

Egun osoan zehar edonork har dezake parte ezkontzan. Herri bazkarirako tike-

tak jarriko dira salgai Turismo Bulegoan -otsailaren 1era arte-. Bi menu izango dira aukeran, eta bakoitzak tiket bat izango du; bata, 10 euroan, haurrentzako menurako izango da (makarroiak tomate eta txorizoarekin, oilasko bularra txip patatekin eta izozki tarrina), eta, bestea 12 euroan salduko da, helduen menurako (babarrun gorriak txorizoarekin, txahal ragout-a txanpi eta patatekin, hojaldrezko tarta eta kafea). Helduek sagardoa (txotx egiteko kupeletan), ardoa edota ura edateko aukera izango dute, eta umeek ura.

Tiketa erosi duen edonor joan daiteke bazkarira, nahiz eta ez joan Euskal Ezkontzaren inguruan mozorrotua. Dena den, guk gai honen inguruan mozorrotzeko deialdia egiten dugu, denok batera ospa dezagun jai erraldoia.

**Beste zerbait nabarmendu nahi?**

Lehen aipatu bezala, nahiz eta gaiaren inguruan ez mozorrotu, bazkari herrikoira edonor joan daitekeela nabarmendu nahi dugu, eta denei luzatu nahi diegu gonbidapena festa handi honetako partaide izan daitezen.

## EUSKAL EZKONTZA: 2016ko otsailaren 6an

**12:00:** Talde guztien bilkura, Simon Berasaluze plazan.

Ezkongaien elkartzeta.

Ondoren, kalejira herriko kaleetatik.

**12:30:** Dantzaldia, plaza zaharrean.

**13:00:** Dantzaldia, Foruen plazan.

**13:30:** Ezkontza Santa Krutz ermitan. Agurra eta bertsoak ezkonberriei.

**14:30:** Bazkaria Aldats pilotalekuan.

**17:00:** Dotearen aurkezpena.

**18:00:** Erromeria, Duguna taldearen eskutik.

## 1986ko ospakizun antzeztua, iruditan





## Ainitze Agirrezabala eta Jone Loiola nagusitu dira "Maite Etxeberria" nesken binakako pala txapelketan

Dorleta Fernández eta Nahia Abadekin 22-20 egin eta gero, Ainitze Agirrezabala eta Jone Loiola dira 2015eko txapelduinak. Ainitze eta Jonek pala txapelketa antolatzen hasi zenetik hirugarren finala jokatu zuten abenduaren 19an; eta beste bietan ere irabazteko hortxe-hortxe egon baziren ere, aurtengora arte itxaron behar izan dute, merezimendu osoz eta arerio oso indartsuen kontra, txapela eskuratzeko. Partida bizia, zirrarragarria izan zen, frontoia bete ikusleen aurrean jokatu zutena. Indarra, jokua, bi paretak, bolea ikusgarriak... Jokalariak gustura eta publikoa ere bai. Detalle guztiak zaindu zituzten antolatzaileek eta, partida aurretik ere, aurrekua eskaini zitzaizen bi bikoteei. Iera Larrañaga eta Enara Gorostiza

izan ziren, hurrenez hurren, dantza eta txistu doinuak eskaini zizkietenak.

Giro bikaina bizi izan zen finalean frontoian. Partidetan sortutako giro alai eta, tarteka, urduria, beste giro bareago, bilduago eta hunkigarriago batekin uztartu zuten jokalaria-partehartzaile guztiek, azken uda honetan auto istripuz hildako Maite Etxeberria palakideari omenaldia egiterakoan. Mari Searak irakurri zuen, denen izenean, harentzat sortutako poema eta Iera Zubikaraik hitz batzuk egin zituen bikotekide izan zuenarentzat. Poema horixe eta Zuriñe Gredillak polito apaindutako pala oparitu zitzaizkion familiari oroigarri gisa. Nesken burubihotzetan izango da beti.

Aurretik 3. eta 4. postua eraba-

kitzeko beste partida bat jokatu zen; hura ere ederra. Irati Ziaran eta Nerea Zubia suertatu ziren garaile Sheila Gonçalves eta Iratxe Astigarragaren aurka (22-14). Lau jokalaria horietatik hiruk, lehenengo aldiz hartu dute parte txapelketan; gazteenak dira. Badirudi, beraz, txapelketa hasi dela pixkanaka-pixkanaka, helburu duen beste horretan ere eragiten: nesken artean, zaharragoen baina batez ere gazteagoen artean, pilotarako zaletasuna pizten eta, adinak adin, zaletasun horren inguruan jendea taldera biltzen. Hasiera ona eman zion laukoteak abenduaren 19ko ekitaldiari. Lehenengo aldiz jokatzen eta 3. eta 4. postua erabakitzen! Bada, ikusten denez, etorkizunik.

*Amaia Zinkunegi*

### Patxi Aldabaldetrecuren omenezko bekaren emaitza aurkeztu du Rosa Murielek

"Música y dantza en las fiestas tradicionales de Deba" izenburupean ikusi du argia Patxi Aldabaldetrecu ikertzaile eta idazle debarra zenaren omenez Debako Ostolaza Kultur Elkarteak antolatutako bekaren ondorioz argitaratu den zazpigarren lanak. Abenduan aurkeztu zen liburua, Kultur elkartearen

Rosa Muriel da liburua egilea. Geografian eta Historian lizentziatua da Muriel eta gaur egun DEBA aldizka-

rian kolaboratzen du.

Liburua gaztelaniaz idatzita dago. Deba Bildumaren zazpigarren alea da eta bertan euskal folkloreaken baitan dau den herriko festak, musika eta dantza aztertu ditu idazleak. Era berean, herriko musika eta dantza taldeen ibilbidea eta Debako gaur egungo festen egutegia ere presente daude argitalpenean.

### Miren Garate kazetari azpeitiarraren proiektuak irabazi du Tene Mujika Beka

Aurtengo Tene Mujika saria Miren Garate kazetariak (Azpeitia, 1985) lortu du, "Ekaitzaren zipriztinak" izenburuko lanarekin. Azken urteotako ekonomi krisiak herritarrengan dituen eraginak kontatu nahi ditu azpeitiarrak bere proiektuan, eta urtebeteko epea izango du orain lana burutu eta liburua argitaratzeko. Ekonomia saileko kazetaria da BERRIA egunkarian Garate. Rikardo Arregi Kazetari Berria Saria ere jaso zuen 2012an.

Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko lanak saritzen ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika Bekak. Alberto Barandiaran, Idurre Eskisabel eta Elixabete Garmendiak osatu dute aurtengo epaimahaia.



### Hamazazpi bikote aritu dira lehian Mus Txapelketan

"Arrano Libre eta Zabalik" ekimenaren baitan abenduaren 26an jokaturako Mus Txapelketan hamazazpi bikotek parte hartu zuten. Joseba Sagarna eta Francisco Xabier Esnaola izan ziren garaileak. Zorionak!

*Arrano Elkarteko Batzordea*



## Uztailean ezarriko da zaborrak biltzeko sistema berria

2015. urte bukaerarako iragarri bazuten ere, badirudi aurtengo udaran ezarriko dela hondakinak biltzeko sistema berria herrian. Debarreneko mankomunitateak aurkeztutako kronogramaren arabera, bosgarren edukiontzi sistema uztailean leian hasiko da. Aldi berean abiatuko da Mutrikun ere, eta 428.442 euroko kostea izango du bi herrietan sistema berria ezartzeak.

Zabor biltzetarako edukiontzi-sistema ezarri ahal izateko hornitze lanak abian daudela jakinarazi zuen Debako Udalak duela zenbait aste. Gabon bezperetan, Mankomunitatea lanean hasita zegoen bilketa sistema berria bermatzeko kamioi eta edukiontzien esleipen prozesuan; "zehazki, zama lanak atzeko aldetik egiteko kamioi txikia (irisgarritasun zaila duten tokietara iritsi ahal izateko) eta hondakin organikoentzako edukiontzi marroiak eta gainontzeko frakzioentzako edukiontzi grisak".

Errefuxa eta bio-hondarrak biltzeko 1.000 eta 2.200 litroko edukiontziak erosi behar dira, edukiontzi marroi eta grisak, hurrenez hurren. Ontziak eta kartoia, kolore hori eta urdineko igluetan utziko dira, orain arte bezala.

Alegia, zaborrak biltzeko sistema berriak bilketa puntu bakoitzean gutxienez hurrengo hondakin motak gaika jasotzeko bermea emango du: organikoak edo bio-hondaki-

nak, ontziak, papera eta kartoia, beira eta gainontzekoak. Pilak, olioak eta oihalak jasotzeko edukiontziak orain arte bezala mantenduko dira.

Edukiontzi marroi eta grisak erabilera-kontrola edukiontzietan sarraila magnetikoak jarritz egingo da. Txartel bidez ireki ahal izango dira, hain zuzen ere, bi mota horietako edukiontziak. Eta hori guztia ondo kudeatu ahal izateko, funtsezkoa da aurrez material informatikoa eskuratzeko, automatikoki eta telematikoki funtzionatzen duten elementuak martxan jartzea eta makineria hori kudeatuko duten langileak (makina saltzaileak eta txartel inprimagailuak) edota edukiontzien erabilera kontrolan arituko direnak trebatzea.

Bilketa sistema aurreikusitakoa baino beranduago abiarazteko arrazoi nagusietako bat ibilgailuaren txasisa eskuratzeko izango omen da.

Deban erroldatutako bizilagunek txipa duten edukiontzien aldeko hautua egin zuten martxoaren amaieran burutu zen herri galdeketan. Gaur egun herritarrok sortzen ditugun hondakinaren %25a jasotzen da sailkatuta, baina birziklatze tasa hori gutxienez %60ra igoztea lortu nahi da. Hori da, beraz, helburu nagusia, sistema berriak ahalbidetu lezakeena, hain zuzen ere.

Sistema berria udaran ezarri aurretik, Mankomunitateak eta Udalak kanpaina informatzaileak iragarri dituzte maiatzerako eta ekainerako.



**euskarak batzen gaitu**  
EL EUSKERA NOS UNE

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak • clases de euskera

**CURSO 15/16 IKASTURTEA**

## 15-16 IKASTURTEA

### Matrikulaldia zabalik

Izena emateko epea  
otsailaren 5era arte.

Langabetu, ikasle eta gurasoek,  
MARIKULA ERDIA

Bekatze sistema ikasturte bukaeran

Etor zaitetz eta informazio  
guztia emango dizugu.

ELGOIBAR: 10:00 – 12:00 / 17:00 - 20:00

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA

Ifar kalea, 12 – Tel.: 943 192 236

[udaleuskaltegia.deba@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.deba@debabe.eus)



## Mari Domingiren eta Olentzeroren bisita eguberrietan



## San Silbestrea, musika kontzertua.. urte zaharrari agur esateko



## Eta iritsi ziren erregeak ere...





## Gure zapi gorriak firin-faran Barakaldoko jolas parkean!

Azaroan egindako abenturazko irteeren ostean, gabon partean bestelako ekimen bat burutu nahi izan dugu. Bi urtez ibili gara ideia honekin buruan bueltaka, eta azkenean forma eman eta animatu gara Barakaldoko jolas parkea ere bisitatzera! Hiru irteera egin ditugu abenduan, maila ezberdineko haurrei aukera emanaz, eta oso pozik gaude bizitako esperientzia berri honekin!

Toki handia, jende asko, ilara luzeak, gure lehen irteera jolas parkera... beldurrak izan bagenituen ere, dena primeran irten zen! Haurren jarrerak eta portaerak asko lagundu dute irteera honetan. Mundialak izan dira denak eta eskerrik beroenak gure partetik. Primeran pasa genuen eta gauza asko-



tan jolasteko aukera izan genuen. Puzgarrietan ibili eta izotzetan patinatze-ko aukera izan genuen, hainbat atrakzio-tan gora eta behera aritu ginen, tailerren bat egiteko aukera ere izan genuen... Gure zapi gorriak firin-faran aritu ziren alde batetik bestera!

Mila esker gugan konfiantza jarri zenuen guztioi eta ekintza berri hau aurrera ateratzea posible egin duzuen guztioi!!

Handitzen ari gara eta hori zuei esker da posible!!!  
Laster arte!

*Kolore Anitz Aisialdi taldea!*



## Majo aprobetxatu ditugu gabonak Gaztelekuan!!!

Saltsa eta mugimendua ziurtaturik daukagu Gaztelekuan. Aurtengoan ere, indartsu igaro ditugu Gabonak, eta ekintza ugari eta ezberdinak egiteko parada izan dugu. Guk, beste behin, ez dugu aukera galdu. Besteak beste, Deba Cup futbol txapelketa mistoa jokatu genuen Errota Zaharren eta, bertan, herriko 90 neska-mutilok neurtu genituen gure indarrak. Barakaldoko Gabonetako parkea, Txuri Urdin Izotz Jauregia eta Durangoko Bolatokia ere bisitatu ditugu egunotan debar gazteok. Ezin aipatu gabe utzi urteroko Hegazkin Txapelketa, Ping-Pong, Billar eta Futbolin lehiaketak eta pasa den urtetik ospatzen dugun Gazte-Bingo. Arrakastatsuak izan dira denak eta, asetuta baino gehiago, Gaztelekuarekin datozkigun esperientzia berriak bizitzeko irrikaz gaude!



erarik onena izan da!"

14-15 urtekoekin Gu Ta Gutarrak Euskal Telebistako saiora joan ginen publiko gisa. Ane: "Esperientzia berria eta dibertigarria, jende berria eta lekuak ezagutzeko aukera izan genuen".

*Gaztelekuko hezitzaileak*







# ZORO FERIA 2016







## FERIAN BANATUTAKO SARIAK

Urte berriko ferian, Txillarre baserriko Peio Rubiok irabazi zuen **barazki lehiaketa** -azken bi urteetan ere berak lortu zuen lehenengo postua-. Garaikurrak gain, elgoibartarrak 300 euroko saria eskuratu zuen, Alfonso Gonzalez, Ignacio Javier Larrañaga eta Joseba Elosuak osatutako epaimahaiak hala erabakita. Bigarren eta hirugarren postuan, berriz, **Itziariko Doniene-Berri baserriko Miriam Arrizabalaga** eta Arizaga baserriko (Soraluze) Ezoz Etxeberria gelditu ziren, hurrenez hurren.

**Frutei** dagokienez, lehenengo saria Mutrikuko Sagarmina baserrira eman zuen Antonio Iparragirrek -posturik onena aurkezteagatik ere bera saritu zuten-; bigarren saria Edurtzeta Atutxari (Igorreko Jauriberrigoikoabehekoa baserria) eman zioten eta hirugarren saria Antoni Murgiondok (Gabiriako Behekoetxe baserria) lortu zuen.

**Doniene-Berri** baserriak jaso zuen herriko posturik onenari eskainitako saria (150 euro eta garaikurra). Eta, bestetik, **Agerre baserriko** (Lastur) Milagros Arruti ere saritu zuen epaimahaiak, herrian "hobekien kudeatutako basoa" berea delakoan.

**Debabarreneko Ezti** lehiaketako epaimahaiak hiru sari banatu zituen: lehenbizikoa herrian bertan geratu zen, **Julian Villena** eta **Nagore Dorronsoro** nagusitu baitziren **Artia Baserriko erletegitik ateratako eztiari** (150 euro eta garaikurra). Saridunak, Gipuzkoako beste zonaldeko saridunekin lehiatuko dira apirillean Zegaman egiten den erlezainegunean. Debako lehiaketako bigarren eta hirugarren sariak Bergarako Asier Martinentzat eta Soraluzeko Erlatz Olabarriarentzat izan ziren. Guztira bailarako hamar erlezain aritu ziren lehiatzen.



Bestalde, **gazta-lehiaketako** epaimahaia Xabier Osa, Jose Ramon Agiriano, Mireia Alonso, Josu Mugerza, Maribi Altzibar eta Pili Manterolak osatu zuten. Hamaika gazta aurkeztu ziren lehiaketara. Lehen saria (350 euro eta oroi-garria) Aixtra baserriko (Araia) La Lezeri eman zioten; bigarren saria, Joseba Insaustiri (Ordiziako Otatza baserria); eta, hirugarrena Araiako Dario Saez de Zuazuri. **Andutzene** baserriko M<sup>a</sup> Jesus Gurrutxaga izan zen herriko lehena.

## Atutxa eta Mugertza, garaile berriz ere Urrezko Aizkoran

Aitzol Atutxa II eta Ugaitz Mugertza II nagusitu ziren pasa den urtarrilaren 3an Deban ospatutako Urrezko Aizkoraren saioan. Aurreko bi urteetako garaipena errepikatu zuten, hortaz, bikoteak.

Aldats pilotalekuan burutu zen hitzordua, seigarren urtez jarraian. Neurri ezberdineko hainbat enbor moztu behar izan zituen aizkolari bikote bakoitzak -modalitate ezberdinetan- eta Atutxak eta Mugertzak osatutako bikoteak lortu zuen garaipena norgehiagokan, Jon Rekondok eta Ruben Saralegik baino erakustaldi finagoa eginez. Txapelkunek 18:51ko denbora behar izan zuten proba burutzeko.

Txapelketak harri-jasotzaileen erakustaldiaz gozatzeko aukera ere eman zien pilotalekura bertaratutako zaleei. Inaxio Perurena eta Idoia Etxeberria izan ziren protagonistak harriarekin lanean.



## Lopategiren idiek irabazi dute aurtengo idi-proba lehia

Billelako Iñaki Lopategiren idiak nagusitu dira urte berriko idi-probetan. Aurtengo marka onena burutu dute, 58 plaza, zinta bat eta 3,39 metro eginda, eta horri esker eskuratu dute sari nagusia: 1.400 euro eta idientzako mantak.

Herrian gelditu da bigarren saria, Erleteren idiek egindako lanari esker (55 plaza). Eta Laukizko Biorenabarri gelditu da hirugarren postuan, 52 plaza beteta.

Urtarrilaren 1ean hasi eta 7an amaitu dira aurtengo idi-probak. Guztira 21 idi-pare aritu dira norgehiagokan eta, ohi bezala, zale ugari hurbildu da Debako Euskal Jolas probalekura. Guztira 14.600 euro banatu ditu Debako Udalak sarietan.



2016ko urtarrila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Surtua.

# BERRIKETAN GAZTEA

## Euskararen Eguna Mendata institutuan

Abenduaren 3an, Debako institutuan ere Euskararen Eguna ospatu zen. Urtero bezala, ekintza desberdinak egin ziren maila bakoitzean. Egindako lan guztiak lau lehiaketa ezberdinetan banatu ziren. Gai nagusia euskara izan zen kasu guztietan.

Lehenengo mailakoek, bakar-ka, markatzaile desberdinak diseinatu zituzten, Itziar Bergararen laguntzarekin. Lehiaketa honen irabazlea Xabier Beasain izan zen, bere markatzailea izan baitzen gustukuena.

Bigarren mailakoek "Badakit" izeneko txapelketa bat izan zuten. Jokoan aritu ziren aurreko bi asteetan eta, Euskararen Egunean, azken kanporaketak izan zituzten. Irabazleak Pablo Ron eta Asier Feijoo izan ziren.

Hirugarren mailakoek pegatinarik nola egiten diren ikasi zuten. Ondoren, pegatina ezberdinak egin zituzten eta, bukatzeko, binaka jarri eta bakoitzak bere pegatina diseinatu zuten. Irabazleak Ane Amutxastegi, Ane Larrañaga eta Idrissa Sene izan ziren.

Laugarren mailakoak hiruak jarri ziren eta bi lan egin zituzten mural baterako. Lehiaketarako marrazki bat eta poema bat egin behar ziren. Marrazki politena aukeratu zuten, azken egunean institutuko paretean marrazteko. Bestalde, informatikan Photoshop-a erabiliz, euskara oinarri hartuta, hainbat lan egin zituzten. Irabazleak Janire Torronteras, Maria Ibarluzea eta Nikolas Egaña izan ziren.

Euskararen Eguneko antolatzaileak azaldu duenez, ikasleei erakusteko laburmetrai batzuk zituzten prest, baina denborarik ez genuen izan horretarako eta aurrerago ikusiko ditugu filmak.

Lehiaketa hauetako irabazleek –lehenengo eta hirugarren mailetako ikasleek–, arropa izango dute saritzat. Laugarren mailakoek ikas-bidairako saltzen duten materiala (kamisetak, sudaderak...) lortuko dute, hain zuzen ere. Laugarren mailakoek, aldiz, herriko liburu-dendetan gastatzeko bono bat izango dute opari gisa.



EGILEAK: Lara Egaña, Jon Osa, Haritz Alberdi eta Ane Lade



# ELKARRIZKETA

## Roke Etxeberria:

**"2014ko irailean hasi  
nintzen igeriketako  
lehiaketetan parte hartzen,  
futbola utziz"**



**Oraingo honetan, gure institutuko Roke Etxeberria igerilariari egin diogu elkarrizketa. Orain arte igerilari bezala izan duen kirol ibilbideaz zertxobait gehiago jakiteko aukera izan dugu.**

### **Non aritzen zara/zinen?**

Zumaiara joaten nintzen hasieran eta bertan ikastaroetan parte hartzen nuen. Orain, aldiz, Eibarren nabil igeriketan.

### **Zein taldetan zabilta?**

Urbat I.K.E. izeneko kirol elkartearen nabil. Behin, igeriketan dabilen lagun batek Urbateko entrenatzailearekin hitz egin zuen eta beraien taldean sartzea proposatu zidan. Orduan poz-pezik onartu nuen aukera hura.

### **Gustuko al duzu?**

Bai, oso gustura nago hartu nuen erabakiarekin eta taldeak egin didan harrerarekin.

### **Praktikatzen al zenuen beste kirolen bat? Zein?**

Bai, futbolekin jokatu nuen. Oso ondo moldatzen nintzen eta oso gustura nengoen, baina igeriketan ere ibiltzen nintzen, kirol bat aukeratu behar izan nuen. Orduan, nire erabakia igeriketako talde batean hastea izan zen.

### **Zergatik hasi zinen igeriketan, futbola utzita?**

Futbolaz gain beste kirolen bat egitea erabaki nuen. Igeriketa hautatu eta asko gustatu zitzaidanez, honekin jarraitzea eta gehiago praktikatzea erabaki nuen. Ez naiz batere damutzen hartutako erabakiaz, oso pozik bainago.

### **Lehiaketetan parte hartzen al duzu? Non burutzen zure lehenengo proba?**

Bai, hilabetean lehiaketa bakarra edo bi izaten ditugu. Legazpikoa izan zen nire lehenengo lehiaketa.

### **Astean zenbat aldiz entrenatzen duzu?**

Astean sei aldiz entrenatzen dut. Astegunetan eta larunbat goizetan. Lehiaketak izanez gero, astean bost aldiz.

### **Garaipenik izan al duzu igerian zabiltzanetik?**

Bai, izan ditut. Gipuzkoako hirugarren gelditu nintzen 50 metro tximeletan. Azpeitiko polikiroldegian izan zen, 2015eko ekainean.

**EGILEAK: Ane Ladera, Jon Osa, Lara Egaña eta Haritz Alberdi**

## IKAS-BIDAIA

Hilabete honetan, laugarren mailakoei joan gatzazkie hainbat galdera egitera. Gai berezi bat hautatu dugu: ikas-bidaia. Lanzarotera joango dira. Dakizuenez, ikas-bidaiara joateko dirua behar da eta horretarako 4. mailako ikasleek hainbat ekintza egiten dituzte: rifak eta bonboiak saldu, desfilea antolatu, jertseak eta nikiak saldu...:

- 1.- Zer ardura mota duzu?
- 2.- Zuk aukeratu duzu?
- 3.- Lan handia al da? Erraz egiten da?
- 4.- Zer egiten duzue?
- 5.- Zer moduz zoazte, oraingo, diru kontuekin?



**Julia Ron**

- 1.- Ni desfileaz ardurutzen naiz.
- 2.- Nik aukeratu nuen.
- 3.- Ez da oso erraza; sinplea dirudi, baina gero dena konplikatzeko da.
- 4.- Lehenik eta behin, Debako dendetara joaten gara desfilean parte hartu nahi ote duten galdeztzera. Gero ikasleak sailkatzen ditugu denda horietan eta ile-apaindegietan. Udaletxera ere joan behar dugu eszenatokia eskatzera, sarrerak prestatzera...
- 5.- Gure ustez, oraingo ondo.



**Irati Albizu**

- 1.- Nire ardura arroparen salmenta antolatzea da.
- 2.- Nik aukeratu nuen. Egia esan ia gehienok aukeratu genuen, baina gutxi batzuei tokatu zitzaigun.
- 3.- Erraz eramatekoa da.
- 4.- Lehenengo marrazki bat egin eta gure ustez politena dena aukeratzeko dugu. Gero Zarauzko enpresa batekin hitz egiten dugu eta, azkenik, jendeak nahi duen jertse kopurua enkargatzen dugu.
- 5.- Ondo goaz diru kontuekin.



**Beñat Eskudero**

- 1.- Ni rifen kontuaz ardurutzen naiz.
- 2.- Nik aukeratu nuen, erraza zelako.
- 3.- Nire ustez, erraz eramatekoa da.
- 4.- Astelehen goizean rifak hartzen ditugu tako handietan, gero horiek 50eko takoetan banatzen ditugu eta ikasleei eman, haiek saltzeko eta dirua lortzeko.
- 5.- Oraingo, nahiko ondo doa.



**Naia Agirregabiria**

- 1.- Ni Itziarko erromeriaz eta feria egunaz ardurutzen naiz.
- 2.- Nik aukeratu nuen, Itziarko naitzenez, ba, erraz eramateko.
- 3.- Oso erraza da lan hau.
- 4.- Egun horietako jardueraz arduratzen gara. Jarduerak aurrez prestatu behar dira eta, ondoren, egun horretan aurrera eraman.
- 5.- Eduki ditugu, normala den bezala, gure arazoak, baina orokorrean ondo.



**Itzale Laka**

- 1.- Bonboiak saltzea da nire ardura.
- 2.- Niri tokatu egin zitzaidan.
- 3.- Erraza dirudien arren, nahiko zaila da.
- 4.- Lehenengo enpresa batekin hitz egiten dugu eta aukeratu ditugun bonboiak aurkezten dizkigute. Ondoren, gelaz gela ibiltzen gara bonboien eskaera-orria banatzen. Azkenik, beriz ere geletara joaten gara eskaera-orrien bila eta gero eskatutako bonboiak enkargatzen ditugu.
- 5.- Oraingo nahiko ondo. Arazotxo batzuk eduki ditugu, baina ondo.



**Ibai Perez**


- 1.- Deba-cup txapelketaz arduratzen naiz.
- 2.- Nik aukeratu nuen, beste bi ikasleekin batera.
- 3.- Oso-oso erraza da.
- 4.- Lehenik, ikastetxean taldeak (mistak) egiten ditugu, eta gero egun bat zehaztu lehiaketa egiteko. Gaztelekuoen laguntzarekin, ogitartekoak eta edariak jartzen ditugu lehiaketa egunean, Errota Zaharren.
- 5.- Gure jardueran ez dago diru konturik.

EGILEAK: Elene Arratibel, Iraide Udabe, Idrissa Sene eta Jon Muñoz



# DENBORA-PASAK

## GURUTZEGRAMA



### ZEHARKA

4. Txikitatik erabili ohi dugu. Hasieran 4 gurpil izaten ditu eta trebe egiten garenean 2.
6. Herriz herri ibiltzen naiz tuneletatik barrena.
7. Eskolako haur gehienak honela heltzen dira eskolara. Elkarrekin.
8. Itsasotik bidaiak egiten ditu.

### BEHERA

1. Zaldiek mugitzen dute.
2. Zerutik ibiltzen da buru gainean abaniko bat bira eta bira duela.
3. Burdinezko bide batetik noa eta ezin hartatik irten.
5. Gaixo dagoen jendea ospitalera eramaten du.

## ASMAKIZUNAK

\*Baserrian jaioa baserrian hazia moztzen duenari bustitzen dio begia. Zer da?

\*Hil batzuek 31 egun dituzte; 30ekoak ere badira. Baina zenbatek dituzte 28 egun?

\*Oso potoloa naiz. Hortz zorrotzak ditut, hanka txikiak, eta uretan ibiltzen naiz. Zer naiz?

## HIZKI-ZOPA

Anbulantzia  
Bizikleta  
Gurdia  
Hegazkina  
Itsasontzia  
Kotxea  
Traktorea  
Trena



### ERANTZUNAK:

A-1) gurdia 2) helikopteroa 3) trena 4) bizikleta 5) ambulantzia 6) metroa 7) autobus 8) itsasontzia  
B- kipula, guztiek, hipopotamoa

EGILEAK: Ane Larranaga, Ane Amutxastegi, Naia Zabala eta Julen Ayastuy

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2015-2016

Ane Amutxastegi  
Elene Arratibel  
Ane Ladera  
Lara Egaña  
Haritz Alberdi  
Julen Ayastuy

Jon Muñoz  
Naia Zabala  
Ane Larrañaga  
Iraide Udabe  
Idrissa Sene  
Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

# AGENDA

## URTARRILAK 29, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

## URTARRILAK 30, LARUNBATA

-9:30-13:00. Hegazti negutarrak behatze-ko irteera egingo da Deba, Mutriku eta Ondarroaren arteko kostaldean. Debanatura elkarteko ornitologoek eskutik burutuko da ekimena. Prismatikoak eramatea gomendatzen da. Irteera: Debako hondartzatik (aurrez eman behar da izena).

-19:00. **"Euskal Herria, zor ezkutua" dokumentala,** Debabe euskaltegian (Ifor kale 12, behean); Euskal Herriak beste herrialdeekiko duen zor ekologikoaren inguruan. Antolatzaileak: Debako Gazte Asanblada, Zirimola kultur eta aisialdi taldea, eta Errima Frustratuen Kluba.

## URTARRILAK 31, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak,** Agirre jauregiko ispi-luen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan: 7-12 urtekoentzat.

## OTSAILAK 3, ASTEAZKENA

-**San Blas Eguna.**

## OTSAILAK 4, OSTEGUNA

-**Santa Ageda bezpera.**

## OTSAILAK 5-9

-**Inauteriak 2016.** Egitarau berezia antolatu du aurten ere Jai Batzordeak (ikus aldizkari honen kontrazala eta 6/7 orrialdeak informazio gehiagorako).

## OTSAILAK 14, IGANDEA

-08:30. **Mendi irteera.** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Lizarrusti-Lareo-Sastarri-Aia (Ataun).

## "Zubeltzu" VII. Bertso Paper Sariaketa

-Abian da bertso paper sariketaren zazpigarren edizioa. Debako Udalaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen arteko ekimen honek hiru maila bereizten ditu: LHko neska-mutilak (2004an jaiotakoak edo gazteagoak), DBHkoak (2000-2003an jaiotakoak) eta nagusiak (1999koak eta zaharragoak). Maila bakoitzari ariketa ezberdina egitea eskatzen zaio; lehenengo bietan gaia jarrita eta helduenean, berriz, libre lagata. Lanak aurkezteko azken eguna: martxoak 18. Informazio gehiagorako: Debako Udala (943 19 28 40) edo Zuhatza Elkarte (943 19 13 83).

## Ikastaroak

-**KZguneak** goizeko ordutegia izango du otsailean. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: Ofimatika tresnak-LibreOffice, oinarriko interneta... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 edo [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net).

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **otsailak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 6 eta 13

BURGOA ZUAZO: urtarrilak 30

9:30 - 13:30

**Uzuri**  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

### ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN

Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12

**JOXEAN GALDONA  
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

English Academy  
**NORTH  
STREET  
ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba  
[rhorton4@yahoo.es](mailto:rhorton4@yahoo.es)





Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206

Tel.faxa: 943 191 774

Hondartza, 10 - behea

**20820 DEBA (Gipuzkoa)**

mikeliturgintza@euskalnet.net

www.mikeliturgintza.com

**A  
D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127

HONDARTZA, 2 - BEHEA

20820 DEBA (GIPUZKOA)

Fax: 943 192 482

ase.deba@teletel.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA

Lersundi 1, behea 20820 - DEBA

Tel: 943192263

www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21

Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**



Pintxoak

Ogitarteak

Plater Konbinatual

Lersundi Kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 618 844 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5

DEBA

Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**Seven Clovers**  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376

Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afariak: 20:00 / 23:00



# INAUTERIAK



Deba 2016



## OTSAILAK 5, ostirala

- 17:30: Foruen plazan: **KINER DANCE**.

## OTSAILAK 6, larunbata

### EYSKAL EZKONTZA

- 12:00: Talde guztien bilkura (Simon Berasaluze plaza). Ezkongaien elkartzea. ondoren **KALEJIRA**.
- 12:30: Plaza Zaharrea: **DANTZA**.
- 13:00: Foruen plazan: **DANTZA**.
- 13:30: **EZKONTZA** Santa Krutz ermitan. **AGURRA** eta **BERTSOAK** ezkonberriei.
- 14:30: **BAZKARIA** Aldats frontoian.
- 17:00: **DOTEAREN AURKEZPENA**.
- 18:00: **ERROMERIA DUGUNA** taldearen eskutik.



Egunean zehar **MOZORRO LEHIAKETA** izango da, bi modalitatetan: banakoa eta taldekoa.

- 13:00: **DEBAKO BANDAREN** eskutik **KALEJIRA**.
- 17:00: Foruen plazan: umeentzako **ENBOLATUAK**.
- 19:30: **DEBAKO BANDA GAZTEAREN** eskutik **KALEJIRA**.
- 20:30: Mozorro lehiaketaren **SARI BANAKETA** Foruen plazan.

## OTSAILAK 9, asteartea

- 17:00: Aldats pilotalekuan: **TXOKOLATADA**. Ondoren umeentzako **MOZORRO SHOW**.